

VI. Mintegia VI Seminario

HEZKUNTZA, ARTEAK ETA HERRITARTASUNA

INGURUNE DIGITALETAN
KULTURA SORTZEA ETA
ESKURATZEA

EDUCACIÓN, ARTES Y CIUDADANÍA

CREACIÓN Y ACCESO A
LA CULTURA EN
ENTORNOS DIGITALES

UZTAILAK 29, OSTEGUNA
29 DE JULIO, JUEVES

ARTIATX SORKUNTZA ETA
ERAKUSKETA LEKUAN

Bilbo
16:00-19:15

ARTIATX ESPACIO DE
CREACIÓN Y EXHIBICIÓN

Bilbao
16:00-19:15

Antolatzaileak **Organizadores**



Kolaboratzaileak **Colaboradores**




LEHENDAKARITZA
Ekoagintza eta Ekidetzarako
Itxarritza Nagusia
Elkarrizketen eta Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



DISEÑO: Maria Mikelarrena



AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Kultura-eskubideei buruzko errelatore bereziak Nazio Batuen Batzar Nagusiari aurkeztutako 2019ko txostenean bi gai aztertu zituen: alde batetik, espazio publikoek zer garrantzi duten kultura-eskubideak erabiltzeko, eta, bestetik, zer arazo konpondu behar diren pertsona guztiek espazio horietarako sarbidea izateko eta horietaz gozatzeko.

Kultura-eskubideen helburua ez da kultura berez babestea, baizik eta pertsona guztiek, diskriminaziorik gabe eta etengabeko bilakaera-esparruan, bizitza kulturala eskuratzeko, bizitza kulturalari laguntzeko eta bizitza kulturean parte hartzeko aukera ematen duten baldintzak babestea. Bizitza kulturean diskriminaziorik gabe parte hartzeko eta arte-adierazpenerako eta sorkuntzarako askatasuna izateko eskubidea, beste eskubide asko bezala, ezin da espazio publiko horiek gabe gozatu, ezta espazio horiek eskuratzeko berdintasunik izan gabe ere.

«Espazio publikoak» esapidea pluralean erabiltzeak «espazio publikoen» izaeran eta irismenean dauden pluraltasuna, aniztasuna eta desberdintasunak azpimarratzen ditu. Espazio publikoen barnean hiri-espazioak sartzen dira, baina baita espazio landatarrak eta naturalak eta espazio errealak eta birtualak ere. Aro digitalean, espazio publikoak ez dira soilik espazio fisikoetara mugatzen, baizik eta ziberespazioa ere sartzen dute. Horrek esan nahi du giza eskubideen, eta, beraz, eskubide kulturalen bermeak aplikagarriak direla linean ere.

Eragile berriak agertzearen, sare sozialen hedapen azkarraren eta datu masiboen ezteandaren ondorioz, sortzeko, ekoizteko, banatzeko, eskuratzeko eta parte hartzeko eredu berriak agertu dira. Ingurune digitalean giza eskubideak eta askatasun artistikorako eskubidea errespetatzea, bereziki artisten eskubide sozialak eta ekonomikoak, garapen jasangarrirako erronka berri gisa onartzen da gaur egun. Horren barruan emakumeen ahalduntzea sartzen da, emakumeek kultura- eta sortze-industrietan kultura-adierazpenen sortzaile eta ekoizle gisa parte har dezaten lagunduz.

Bestalde, COVID-19ak konfinamenduari, kultura-azpiegiturak ixteari eta zuzeneko ekitaldiak bertan behera uzteari dagokionez izan dituen ondorioek mugimendu handi bat sortu zuten kultura-kudeatzaileen, artisten eta sortzaileen artean, eduki eta produktu kulturalak jarri baitzituzten gizartearen eskura, linean eskuratu eta gozatzeko, etxetik. Beraz, premiazkoa da lan egitea eta arreta jartzea kultura eskuratzeko, ekoizteko eta kulturaren parte hartzeko eskubideetan eta aukeretan, baita artisten eskubide sozioekonomikoetan ere.

MINTEGIAREN HELBURUAK

- Kontzeptuak argitzea eta ingurune digitalean eskubide kulturalak gauzatzeak dakartzan erronkei buruzko gogoeta egitea.
- Eremu honetako sorkuntzaren, baterako sorkuntzaren eta heziketa artistiko eta kulturalaren inguruko jardunbide egokiak identifikatzea eta partekatzea.

- Gizarte-eraldaketa lortzeko, arteetatik eta kulturatik lan egiten duten agenteen arteko aliantzak eta elkarlanean aritzeko aukerak zabaltzea eta indartzea.


PROGRAMA

- 16:00 - 16:10 **Ongietorria. Arantza Acha.** UNESCO Etxearen zuzendaria.
- 16:10 - 17:00 **Eskubide kulturalak ingurune digitaletan.**
Maidar Maraña. *Baketiken zuzendaria eta eskubide kulturaletan aditua.*
- 17:00 - 18:00 **Artibismo feminista ziberespazioan.**
Micaela Távara eta Alondra Flores. *Trenzar Elkarte, Lima.* (online)
Irantzu Lekue. *ARTgia.*
Sortzaile horiek azken bi hilabeteetan online egindako trukean erabili duten metodologia eta prozesuaren ondoriozko ikus-entzunezko piezak aurkeztuko dira.
- 18:00 - 18:40 **Sorkuntza digitalaren inguruko esperientziak.**
Blanca Ortiga. *FEM TEK Jarduera artistiko garaikideak, feminismoak eta teknologia biltzen dituen programaren zuzendaria.*
Pablo M. Garrido. *Artista bisuala eta ikertzailea, Tabakalera.*
- 18:30 - 19:10 **Gizarte-eraldaketarako heziketa artistikoaren inguruko esperientziak.**
Diana Franco. *Haritu Lab Kultura Digital eta Teknologiaiko Laborategiaren koordinatzailea – EDE Fundazioa – Suspergintza.*
Georges Belinga. *Kamanga Influencers Clubaren koordinatzailea eta Koop SF 34ren sortzailea.*
- 19:10 - 19:15 **Amaiera. Begoña Guzmán.** UNESCO Etxearen kultura-eraldaketarako kulturaren arduraduna.

Nerea Rojas izango da errelatorea.

MINTEGIRA BERTARATZEA

Presentzialki bertaratzeko izen-emateak: <https://forms.gle/EqCBF4CCvKS2Kf3k7>

Artiatx Espazioa. 
Deustuibarra 70A, 2. solairua, Bilbo.

Streaming Youtube kanala UNESCO Etxea <https://youtu.be/GjHKyN6xU7Y>